

Sagardoaz

MAIALEN LUJANBIO

«Ardoaren ondoren hitzak jaiotzen dira, euriaren ondoren belarra» latinezko errana aipatzen zuen atzo beheko bizilagunak. Zer sortzen ote den sagardoaren ondotik pentsatzen ari nintzen, sagardoaren lurraldea udako Zarautz bat bilakatu zori den honetan.

Upelean ziria sartu, zirikatu eta muztioa ateraraztea, eztarri zulotik ziri bat sartu, eta barru gogortuei zirrikitua zabaltzea da. Gatz-urak mukiak bezala mugitzen ditu sagardoak kontu isilik metatuak. Upel ertzean beti irteten da zeure buruari esango ez zenuela promes egin zenion hori; upel ertzean ernetzen poz ausart bat; upeletan lagunak dira lagunago eta zoriona zorionago. Terapia popularra da sagardotegia; Osakidetzak errezetatu behar lukeen *gozakidetza*.

Sagardoa, kristal fineko koparen inbidiarik gabe, bere edalontzi etxekoan, mundu modu baten edaria izan zitekeen. Sagardoa, bizi-ideologia bezala: «gutxi eta maiz» leloa ulerturik «gutxi eta denontzat». Sagardoa izan zitekeen pertsonak bezala, berean gozo berean eder, pertsonak bezala ardo izatera iristeko ametsik ez balu...